



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

GIZARTE ONGIZATE BATZORDEKO AKTA

Eguna : 2013-01-28a

Hasiera-amaiera : 18:30 – 20:00

Tokia : Batzar-gela 1

Bertaratuak: Ongizateko batzorde burua: Rakel Elu

BILDUKo kidea : Juan Ramon Iriondo

ADEMBI : Nekane Landaribar

Idoia Alegria

Antiguako Ama : Rosario Ducay

Rosario Urrosolo

GORABIDE : Begoña Zelaia

Inmaculada Laka

Gurutze Gorria: Miguel Angel Anacabe

Enaitz Vicandi

Janari eta beste premia batzuk asetzen laguntzen duten

bolondresak: Juanjo Bedialauneta eta Juana Cabrera

Ondarroako Osasun Zentroa: Eladino Gonzalez

Minbiziko aurka: Marije Ibarloza

Perurekin elkarteak: Amagoia Monasterio

AZTERGAIK:

- 1.- Aurreko akten onarpena
- 2.- Bizkaiko Medikuen Elkargoak proposatutako kanpaina.
- 3.- Etxe-kaleratzeei aurre egiteko udalaren konpromisoa eta neurriak.
- 4.- 2013an batzorde honetan lantzeko bakoitzak eduki lezakeen premiak.
- 5.- Eskari-galderak.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Esandakoak:

1.- Aurreko batzarreko akta, 2012ko abenduaren 17koa, onartu da.

2.- Juan Ramonek, Bizkaiko Medikuen Elkargoak haurren obesitatearen kontrako kanpaina antolatu duela azaldu du eta Ondarroa ere kanpaina horretan sartuko dela; kanpaina hau aurrera eramateko ekintza ezberdinak egingo dira: gurasoei zuzenduta hitzaldiak hainbat herritan izango dira eta urte osoan zehar baina oraindik zein egunetan izango diren faltatzen denez, jakiten denean zabalduko da informazioa.

Laster ikastetxeetan landu daitekeen euskerazko dossiera bialduko digute.

Kanpaina bukatzeko, janarien bilketa egitea eta batutakoak Bizkaiko Janarien Bankoari bidaltzea nahiko luketela, beharrez aurkitzen direnei banatzeko.

3.-Puntu honetan, Rakelek azaldu du etxe-kaleratzeak direla eta, Bildutik Protokolo bat bideratu nahi dela, dagoeneko egoera larriak egonik eta gehiago egongo diren susmoak izanda, denon arteko konpromisoa behar delako. Arazo honi konponbide bat topatu nahian, laguntza eta ekintza praktikoak izan behar direla eta lema, gehiago ez gertatzea dela.

Protokolo honetan agertuko da arduradun bat, kontaktuaren telefonoa eta emaila.

Kaltetuek nahi badute informazioa eta laguntza eskatu dezakete.

Etxe-kaleratze arriskuan daudenen nahiak eta proposamenak jakin ondoren egingo dira hurrengo pausoak, esate baterako eta hala badagokio, bankuarekin harremanak bideratu eta abar.

Prozesua martxan ipintzen duena Kutxabank denean, Udala bezeroa izanik, etxe desjabetzea bertan bera lagatzea eskatuko zaio.

Guzti honez gain, laguntza juridikoa eta behar den informazioa eskainiko zaio behar duenari.

Arazoa konplexua izanik, erakundeen arteko elkarlana behar dela aipatu da, esate baterako Foru Aldundia eta Etxebiderek.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Etxe desjabetzeak herrian gertatuz gero, egunean bertan konzentrazioak deituko dira.

4.- Egin nahi den Gizarte Ongizateko Gidan, talde desberdinen egutegia islatu nahi da, herritarrei informazioa zabaltzeko xedearekin.

Horretarako talde bakoitzak bere ekintzak zehaztuta ekarri behar dituela azaldu da, zer agertzea nahi duten azalduta eta gaurko batzarrerako ez badute ezer prestatuta ekarri ere, hurrengo bilerarako ekartzea komeni dela.

Ondoren, Enaitz eta Migel Angelek, Gurutze Gorria herriz-herri eskaintzen ari den familientzako laguntza programa adierazi dute. Programa honek bi atal ditu, bata umeak dituzten familientzako janari laguntza eta bestea, etxea garbitzeko produktuena. Biak idatziz eskatu behar direla eta hilaren erdirako egitea komeni dela, gero Bilbora bidali behar dituztelako eskaerak.

Etiket kalera irtetzeko arazoak dituztenei ere, igogailurik ez dukatelako alegia, laguntza eskaintzen diela azaldu dute, medikunera edo bereziki nonbaitera joan beharra dutenean.

Gaur egun anbulantziaren ardura dute eta zerbitzu hau egiteko 8 pertsona daude. Apirila arte izango da gero aldaketak datoz. 112 emergentzia ere bukatu omen daiteke.

5.- Eskari-galderak

Rakelek Eguneko zentrua dela eta Foru Aldundian berriro hitzordua eskatu dela azaldu du, noiz zabalduko den edo zein asmo dagoen jakiteko.

Aurretik Iñigo Pombo arduradunarekin aldiro batzeko geratuta egon diren arren, hauteskunde ostean beste arduradun bat izendatu da, Sergio Murillo eta orain beronekin biltzeko asmoa dago.

2012ko urriko ekintzen balorazioa :

Antiguako Amako ordezkariak uste dute antolatutako ekintzak ondo egon zirela eta beraiek hurrengoan ere ekintzak egiteko prest agertu dira.

Ondarroako institutukoek idatziz egin dute euren balorazioa eta euren aburuz gaixo mentalari buruzko hitzaldia luzea eta dena ahozkoa izanik, monotonoa izan zen 12-13- urteko ikasleentzako.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Janari bilketari dagokionez, hurrengo baterako epe luzeagoa izatea komenigarria dela aipatu dute.

Gorabidekoak balorazio ona egin dute . Hizlari ona eta Gorabideko partaide baten parte hartzeaz ongi azaldu zela mezua.
Gabonetan egindako erakusketak ere balorazio ona jaso du.

Adembiko ordezkariak ekintzak ondo egon zirela esan dute. Hala ere, beraien hitzaldira persona gutxi joan zela (seguruenik pertsona gazte baten elizkizuna ere ordu berberean izan zelako).
Euren hizlariak ondo azaldu zuela gaia eta elkarteari buruzko material ugari ekarri zituela.

Etxeko botikina hitzaldiari buruz, oso praktikoa izan zela eta aldiro holakoak egitea komenigarria dela.

Azkenik, Eladinok azaldu du Ondarroako ginekologia zerbitzua asteko egun bitik egun batera gutxituko dela, Osakidetzako baja bat ez delako ordezkaturko.

Hainbeste urtetan lortutako zerbitzu honek atzerakada izango duela eta orain arteko egunak mantentzea eskatu beharko litzatekeela.

Batzarra 20,15ean bukatu da eta hurrengo bilera martxoaren 11an izango da.

Ondarroa 2013ko martxoaren 1ean.

Gizarte laguntzailea